

EHTE TXISTURAKO KONPOSIZIO LEHIAKETA 2021


Euskal Herriko Txistulari Elkarteak, txisturako zein bere familia instrumentuentzako obra berrien sorkuntza sustatzeko asmotan, **2021eko EHTE Txisturako Konposizio Lehiaketa** antolatu du. Adin eta herrialde ezberdineko konpositoreek parte hartu dezakete lehiaketan.

Hiru izango dira konpositore aukeratuak. Aukeraturiko konpositoreek Euskal Herriko Txistulari Elkartearen izenean **obra berri bat idazteko enkargua jasoko dute** ondorengo baldintzetan:

- **2.000€**ko enkargu bat epaimahaiak proposaturiko talde txiki baterako obra bat idazteko (gehienez 6 musikariko taldea, barnean gutxienez txistulari bat duelarik).
- **1.500€**ko enkargu bat epaimahaiak proposaturiko talde txiki baterako obra bat idazteko (gehienez 4 musikariko taldea, barnean gutxienez txistulari bat duelarik).
- **1.500€**ko enkargu bat Trio Zukan hirukotearentzat obra bat idazteko (txistulari bat, akordeoia eta perkusiorako). Enkargu hau Trio Zukanek babestua dago.

DINARRIAK

- Egile bakoitzak proposamen bakar bat bidal dezake.
- Deialdian parte hartzeko **ez da inolako tasarik ordaindu behar**.
- Dokumentazio guztia emailez bidali beharko da **konposiziolehiaketa@txistulari.eus** helbidera, **2021eko azaroaren 1a** jasotzeko azken eguna izanik.
- Data hau baino beranduago jasotako edo osatu gabeko proposamenak ez dira aintzat hartuko.
- Partitura eta bestelako agiriak .pdf formatuan bidali beharko dira.
- Grabazio eta audioak .mp3/wav/aiff formatuetan bidali beharko dira.
- Artxiboen tamaina 10mb baino handiagoa bada laino zerbitzuen bidez bildatzea gomendatzen da.
- Aukeraturiko konpositoreek **2022ko ekainaren 1a baino lehen pieza berri bat idazteko konpromisoa hartuko dute**.



EHTE TXISTURAKO KONPOSIZIO LEHIAKETA 2021

BIDALI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Egilearen lan ildoen erakusgarri den ganbera talderako **partitura eta grabazio bat** (3-12 musikari artean); elektronikadun lanak ez dira onartuko.
- Egilearen biografia laburra (gehenez orrialde bat). Parte hartzailearen izen abizenak, NAN zenbakia, nazionalitatea eta jaiotze data agertzen direlarik.

EPAIMAHAIA

- Epaimahaia hainbat txistulari eta konpositorek osatuko dute.
- Epaimahaia instrumentuaren (txistua) inguruko eta enkarguaren inguruko beste edozein zalantza argituko dizkie konpositore aukeratuei.
- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

EMAITZAK

- Parte hartzaileei email bidez jakinaraziko zaie lehiaketaren emaitza 2021eko abenduaren 1a baino lehen.
- Emaitzak www.txistulari.eus webgunean ere argitaratuko dira.
- Edozein zalantza argitzeko idatzi konposiziolehiaketa@txistulari.eus helbidera.



euskal herriko txistulari elkarteak



kutxa FUNDAZIOA

